

DEBAko UDALA

2018SPLE0002  
2. BILERA: EZOHIKOA 2018-02-27

## Udalbatzarraren bilkura-akta

**Bilkura:** arauz deitutako ezohizko Udalbatzarra  
**Zenbatgarrena:** bigarrena  
**Eguna:** 2018/02/27  
**Hasiera-ordua:** 19:30  
**Amaiera-ordua:** 20:20  
**Onarpen-eguna:** 2018/03/28

### **Bertaratutako zinegotzi hautatuak:**


PEDRO M<sup>a</sup> BENGOETXEA LOIOLA  
IÑAKI ESNAOLA OSTOLAZA  
AITOR SALEGI IRURETA  
ANE MIREN EGIDAZU ELOSUA  
M<sup>a</sup> LUISA ALBIZU BEITIA  
MAIDER ZUBIKARAI BERISTAIN  
AIMAR LASA URKIRI  
ITZIAR IRIZAR BERISTAIN  
JOSE LUIS ALBIZU BERISTAIN  
CRISTOBAL DEL CORTE LAPACHERIE  
UNAI LEKUBE ARANBERRI  
IÑIGO CAMBRONERO ALKORTA  
ANA BELEN HIDALGO CORRAL, idazkaria

### **Azaldu ez diren zinegotzi hautatuak:**

MIREN ELISABETH URTEAGA IÑARRA

### **Bertaratzeak eta irteerak**


### **Gora-beherak**



## DEBAko UDALA

### **Aztergaiak:**

1. 2018ko urterako Udal aurrekontua, Aurrekontuaren Exekuziorako Udal Araua, plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda onartzeko proposamena. Hasierako onespina.
2. Debako udalerrian baina Tokiko Erakunde Txikiaren lur eremutik kanpo, eragina izango duten kultur programak edo jarduerak antolatzen dituzten irabazi asmorik gabeko herriko elkarteei eta pertsona fisikoei diru-laguntzak norgehiagoka prozedura bidez esleitzeko oinarri arautzaileei hasierako onspina ematea.
3. Euskaraldia egitasmoarekin bat egiteko proposamena.
4. Eskariak eta galderak.



DEBAko UDALA

## Esan-eginak eta erabakiak

### **1.- 2018ko urterako Udal aurrekontua, Aurrekontuaren Exekuziorako Udal Araua, plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda onartzeko proposamena. Hasierako onespena.**

Zinegotziek eskuartean dutena, Ogasuna, Ondarea eta Kontuatarako batzordearen proposamena da.

#### ***Txostena***

Udal aurrekontuak, Aurrekontuaren Exekuziorako Udal Araua eta plantilla organikoa onartzeko edo aldatzeko jarraitu behar den prozedurari dagokionez, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Araua da aplikagarria.

Aurrekontuaren Exekuziorako Udal Arauari dagokionez, amaierako bigarren xedapenari jarraiki “egokitzen diren aurrekontuen gauzatze araei Foru Arau honek 15. 17. eta 18. artikuluetan aipatutako publizitate, erreklamazio eta errekursoei buruzko arauak aplikatuko zaizkie”.

Udalbatzaren akordioaren hasierako onespenaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren jendaurrera azalduko da hamabost egunetan. Epealdi horretan interesatuek aztertu eta udalbatzari erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote. Epealdi horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabakia behin betikoz onetsizat joko dira. Bestela, udalbatzak hilabeteko epea izango du erreklamazioak ebazteko.

Behin betiko onetsita, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira udal aurrekontuaren laburpena, Aurrekontuaren Exekuziorako Udal Arauaren testua, plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda .

Udal aurrekontuaren laburpena eta Aurrekontuaren Exekuziorako Udal Arauaren kopia bat bidaliko zaio Gipuzkoako Foru Aldundiari, hark administrazio eskudunei bidaliko dielarik.

Hasierako onespenak, gehiengo soila eskatzen du.


#### ***Iritziak eta galde erantzunak***

Iñaki Esnaola zinegotziak aurrekontuen edukiaren azalpen orokorra eman du.

Jarraian, alkateak Itziarko Toki Entitate Txikiko auzo-alkateari hitza eman dio. Zigor Aizpuruak testu bat irakurri du aurrekontuen inguruan eta jarraian udal idazkariari eman dio aktan txertatzeko:

“2018ko AURREKONTUAK / ITZIARKO AUZO UDALAREN MEZUA

Gaur hemen onartzekoak diren 2018ko udal aurrekontuekiko desadostasuna adierazi nahi nuke Itziarko Auzo Udalaren izenean.



## DEBAko UDALA

Aurrekontu hauek ez dute aintzat hartzen dagozkion portzentaia eta landutako partiden arabera auzo udalak jorratu eta bideratutako proposamenak:

1. Itziarko Tokiko Entitate Txikiari dagokion 2018ko ekarpen ekonomikoa kalkulatzeko, Debako Udalak 2015 Foru Dekretuaren 6. artikuluan xedatutakoz denaren arabera bigarren faseari dagokion formularen zati bat bakarrik aplikatu du, ez osorik, eta beraz, Foru Dekretuak ezartzen duena bere horretan bete gabe.

2. Aurrekoaren ondorioz, Debako Udalak Itziarko Auzo Udalarentzat 2018ko aurrekontuetan, 854.939 euro aurreikusi ditu, eta kopuru hori, Itziarko Tokiko Entitate Txikiari dagokiona baino 109.000 euro gutxiago da.

3. Itziarko Auzo Udalak 2017ko abenduaren 27an aurkeztutako aurrekontuekiko Debako Udalak egin dituen aldaketak honakoak dira:

**a.** Auzo Udalak aurkeztu bai baina Debako Udalak jaso ez dituen aurrekontu partidak:

1. Auzo Udalaren koordinazio lanak egiteko teknikariaren kontrataziorako aurrekontua, 35.600 eurokoa.
2. Erantzukizun zibileko aseguruia, 3.000 euro.
3. Herri lanetarako ibilgailu bat erosteko aurreikusitako aurrekontua: 25.000 euro.

**b.** Auzo Udalak aurkeztutako proposamenarekiko Debako Udalak aldatu egin dituen aurrekontu partidak:

1. Mankomunitatea, kale garbiketa: igoera txiki bat 18.270etik 18.452ra.
2. Mankomunitatea, hondakinak: igoera txiki bat, 385.867tik 389.725era.
3. "Inbertsioak auzoetan" zena, 48.587,67 euroko aurrekontuarekin, "Inbertsioak Itziarren" ipini du Debako Udalak, eta jaitsiera bat aplikatuta 36.958 eurotara.


Aurrekontu berrian jasoko ez dugun diru hori ez zen kapritxotarako. Arrazoitutako zerbitzu eta premia konkretuak asetzea zuen helburu, auzotarren ongizate eta bizi-baldintzen garapenerako. Are zailagoa da ulertzen murrizketa hau, oraintsu adierazi duenean Debako Udalak 2.000.000tik gorako gerakina (edo remanentea) duela gordeta.

Debako Udal Gobernuak ez dio eskaini negoziaketarako biderik Itziarko Auzo Udalari, eta berak derizkion aurrekontuak inposatu ditu. Bitartean, Itziarko Auzo Udalari gero eta ardura gehiago egozten zaizkio egunerokotasunean, baina arduren araberako baliabiderik ez zaio eskaintzen. Begibistakoa da Debako Udalak jarritako baliabideekin ez gabela iristen gutxieneko zerbitzu eta kudeaketak bermatzera.

Hala ere Itziarko Auzo Udaletik gure asmarekinurrera jarrituko dugu, biztanle guztiengana kalitatezko zerbitzu eta onurak ekarriz."

Zigorri erantzunez, Iñaki Esnaola zinegotziak dio gerakina bi milioi euro baino gehiagokoa izanda, TETaren aurrekontuaren hainbat partiden ez onarpenak ez duela zer ikusirik diru gabeziarekin. Gogorarazi du, 2017ko martxoan onartutako hitzarmena ez dagoela inplazaturatuta, eta ondorioz, indarrean dagoela.

Horren harira alkateak esan du, ez dela egia negoziaketarik ez dela egon, elkarrizketak egon baitira eta ez dena onartu hiru gauza izan direla, autoa, teknikaria eta aseguruia, horiek zerbitzuak bikoiztea suposatzen dutelako. Berak ere gogorarazi du 2017ko martxoaren 31ko



## DEBAko UDALA

akordioa indarrean dagoela. Esan du, beti esan ohi izan duela inoiz proiektu on bat badago Udala prest egongo dela onartzeko.

Itziar Irizar zinegotziak esan du, 2017ko martxoko dokumentua gehiengoz onartu zela, baina ez zela egon alde bien onarpenik. TETak hazteko teknikari baten beharra daukala esan du, izan ere, udal langileen %20ko dedikazioa ez da betetzen eta dena interes kontua dela uste du.

Maidier Zubikarai zinegotziak esan du, azken hiru urte hauetan beraiek beti ekarpenak egin izan dituztela, eta horiek egiteko orduan beti nolako Deba nahi duten eduki izan dutela kontuan. Azpirmarratu du, Udalaren egoera ekonomikoa oso ona dela, eta altxortegiaren egoera ona ikusita inbertsio batzuk gauzatuko direla ziurtatzeko konpromisoa hartzea eskatu dutela. Esate baterako, Arte Eskola balorean jartzea, Miramar Hotela zenaren orubearen eta Danobat eraikinaren inguruan hausnarketa egitea, etxebizitza dotazionalak, Maxpe etxea, kaseta beltza, ETS eraikina eta kiosko gunea... Adierazi du, beraiek ekarpenak egin ondoren aldaketa gutxi egon direla aurrekontuetan eta ez dela egon keinurik. Azkenik esan du, TETak bere proposamena egin duela eta aipatutako hitzarmena, adostasuneko hitzarmena izan beharko litzatekeela. Horiek horrela, beraiek ezetz bozkatuko dute.

Iñaki Esnaolak erantzun dio beraien inbertsio proposamena berdintsua dela, gauzatuko diren esperantza duela eta EAJrekin batera atak irekita dituztela proiektuak gauzatzeko elkarlana egiteko.

Bestalde, EhBilduren proposamenean partida batzuk igo eta beste batzuk jeitsi egiten ziren, aldaketa horiek ez dira oso esanguratsuak baina ez du ulertzen zein irizpideri erantzuten dioten. Horretarako azaldu du nola partida jakin horietan aurreikusitako kopurua ez den agortu eta ez du zentzuzkoa ikusten igotea.


Maiderrekin erantzun dio, partida proposamen horiek irizpide jakin bat dutela, lehen zegoen diru kopurura heltzea, alegia. Bere ustez, iniziatiba badago diru hori gastatuko da eta iniziatiba bat izan edo beste bat izan horrek ibilbide bat markatzen duela.

Ane Egidazu zinegotziak esan du, liburutegiari dagokion partidaren inguruan, liburu erosketan jaitsi egin dela partida baina beste iniziatiba batzuk jorratu direla, esate baterako buzoia jartzea edo irakurketa kluba abian jartzea. Azkenik esan du, Batzordeetan irizpide desberdinak jorratu direla baina horietan ez dela ekarpenik egin.

Alkateak hitza hartu du eta erantzun dio Maiderri keinuak egon egon direla, aurrekontuak lehenengo batzordeetan landu direla baina beraiek beti esan izan dutela aurrekontuen balorazio orokorra egingo zutela eta batzordeak egin ondoren EhBilduk proposatutako aldatetak ez zaizkiela adierazgarriak iruditu.

Maiderrekin erantzun dio alkateari, beraien ekarpena batzordeetan gehiago izan zitekeela, baina aurrekontuak lantzeko orduan horien marko orokorra hartzen dutela kontuan, hau da, bere osotasunean lantzen dutela eta ez batzordez batzorde.

Cristobal del Corte zinegotziak esan du, aldeko botoa emango dutela. Maiderrekin galdetu du birziklapenaren inguruan gastatu ez den partida bati buruz eta Cristobalekin erantzun dio ez daukala informazio zehatzik baina informatuko dela eta argituko diola.



## DEBAko UDALA

Bozketa arrunta egin ondoren, idazkariak honako emaitza hau jaso dela informatu du:

### BOZKETA

◇ <b>Bozketan parte hartu duten zinegotziak:</b> .....	<b>12</b>
◇ <b>Aldeko botoak:</b> .....	<b>8</b>
<b>Aldeko boto-emaileak:</b> PEDRO M <sup>a</sup> BENGOTXEA, AITOR SALEGI, ANE MIREN EGUIDAZU, M <sup>a</sup> LUISA ALBIZU, IÑAKI ESNAOLA, Debarren Ahotsa taldeko Alkate eta zinegotziak.	
◇ CRISTOBAL DEL CORTE, IÑIGO CAMBRONERO, UNAI LEKUBE EAJ-PNVko zinegotziak.	
◇ <b>Aurkako botoak:</b> .....	<b>4</b>
◇ <b>Aurkako boto-emaileak:</b> MAIDER ZUBICARAY, AIMAR LASA, ITZIAR IRIZAR, JOSE LUIS ALBIZU, EH Bilduko zinegotziak.	
◇ <b>Abstentzioak:</b>	<b>0</b>
◇ <b>Emaitza:</b> UDAL PROPOSAMENA ONARTZEA	

### *Erabakia.*


Ogasuna, Ondarea eta Kontuetarako batzordearen proposamenaren berri eduki ondoren, Udalbatzarra osatzen duten hamahiru zinegotziak bilkuran direla, Udalbatzarrak ondoko erabakia hartu du goian adierazitako gehiengoarekin:

**Lehenengo.-** 2018 urteko Aurrekontuei, Aurrekontu Orokorra betetzeko Udal Arauari, Plantilla Organikoari eta Lanpostuen Zerrendari hasierako onespena ematea.

**Bigarrena.-** Erabaki hau argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan jartzea, jendurreko informazio epea zabaltzen dela guztiei jakinarazteko. Iragarkia argitaratu eta hamabost egunean interesatuek erreklamazioak aurkezteko aukera izango dute.

Aipatu epean erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-betiko onartutzat joko da; hala ez izatekotan, Udalbatzarrak hilabeteko epea izango du erreklamazioak ebazteko. Behin-betikoz onartutakoa, GAO onargaratuko da.

**Hirugarren.-** Behin-betikoz onartutako Aurrekontuaren laburpena eta Aurrekontu Orokorra betetzeko Udal Arauaren kopia Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea.



## DEBAko UDALA

**2.- Debako udalerrian baina Tokiko Erakunde Txikiaren lur eremutik kanpo, eragina izango duten kultur programak edo jarduerak antolatzen dituzten irabazi asmorik gabeko herriko elkarteei eta pertsona fisikoei diru-laguntzak norgehiagoka prozedura bidez esleitzeko oinarri arautzaileei hasierako onespena ematea.**

Zinegotziek esku artean dutena Hekuntza, Euskara eta Kultura batzorde informatzailearen proposamena da.

### ***Iritziak eta galde erantzunak***

Ane Egidazu zinegotziak azaldu du oinarriak egitearen arrazoi nagusia dela legearen eskakizunak betetzea eta partida elkarteen artean banatzeko modua finkatzea. Oinarriak Kultura batzordean landu direla azaldu du, eta lanketa horretan herriko taldeek parte hartu dutela eta beraien ekarpenak kontuan hartu direla.

### ***Erabakia.***


Udalbatzarrak aho batez hartu du erabakia, legezko hamahiru kideetatik hamabi bilkuran direla, horretarako aintzat hartu da Hekuntza, Euskara eta Kultura batzorde informatzailearen proposamena:

**Lehenengo.-** Debako udalerrian baina Tokiko Erakunde Txikiaren lur eremutik kanpo, eragina izango duten kultur programak edo jarduerak antolatzen dituzten irabazi asmorik gabeko herriko elkarteei eta pertsona fisikoei diru-laguntzak norgehiagoka prozedura bidez esleitzeko oinarri arautzaileei hasierako onespena ematea.

**Bigarren.-**Oinarri arautzaileak jendaurrean jartzea 30 laneguneko epean, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, apirilaren 2ko, 7/1985 Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenaren Legearen 49. artikuluari jarraiki, interesdunek beharrezko ikusten dituzten erreklamazioak edo iradokizunak egin ahal izateko. Jendeari jakinarazteko aginduta dagoen epea amaitutakoan, inolako erreklamaziorik edo oharririk aurkeztu ez bada, aipatutako Araudia, behin betiko onartutzat joko da.

Espedientea Debako Udaleko Idazkaritzan dago (Portu kalea, 1), nahi duenak ikus dezan, goizeko 8:00etatik 14:00etara, astelehenetik ostiralera bitartean.

Erreklamazioak eta iradokizunak egin nahiz izanez gero, epe horretan bertan egin behar dira, eta Udalaren Erregistro Nagusian aurkeztu. Horiek erabakitzeke ahalmena Udalbatzak du.



## DEBAko UDALA

### **3.- Euskaraldia egitasmoarekin bat egiteko proposamena.**

Zinegotziek esku artean dutena Hekuntza, Euskara eta Kultura batzorde informatzailearen proposamena da.

Ane Egidazu zinegotziak Euskaraldia egitasmoaren berri eman du.

#### ***Erabakia.***

Udalbatzarrak aho batez hartu du erabakia, legezko hamahiru kideetatik hamabi bilkuran direla, horretarako aintzat hartu da Hekuntza, Euskara eta Kultura batzorde informatzailearen proposamena:

**Lehenengo.-** Euskaraldia egitasmoarekin bat egitea.

### **4.- Eskariak eta galderak.**

Maria Luisa Albizu zinegotziak Martxoaren 8ko ekitaldien berri eman du.

Besterik gabe, Alkate-Udalburuak amaitutzat eman du bilera, eta, eztabaidatutakoa nahiz erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizen honek, hori guztia idatzi eta ziurtatu egin dut.

**IDAZKARIA**

Deban, 2018ko otsailaren 27a